

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

277/2013 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren 2012ko autolikidazioak aurkezteko ereduak eta modalitateak onartu, balantzeak eguneratzearen karga bakarrari dagokion eredia eta modalitateak ontzat hartu, eta aurkezpen epeak eta tokiak arautzen dituen.

Aurreko urteetan bezala, 2012. urtea amaitzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaldia itxi da, eta horrek zergaren sortzapea ekarri du abenduaren 31n. Eta beste urte horietan bezala, orain zergapekoei dagokie zerga hori likidatzea.

Ekitaldia amaitzeak Ondarearen gaineko Zergaren sortzapea ere ekarri du berekin, zerga hori abenduaren 26ko 6/2011 Foru Arauak berrezarri baitzuen. Kontuan hartu behar da Ondarearen gaineko Zerga 2008ko zergaldia arte egon zela indarrean, eta zenbait zergatan aldaketak sartzen dituen abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauak indarrak gabe utzi zuela 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. 6/2011 Foru Arauak bi urterako berrezarri zuen Ondarearen gaineko Zerga, foru arauak berak xedatu baitzuen zerga hori indarrak gabe geratuko zela 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera. 2013. urteari eta hurrengoei begiratuta, 2012. urtearen bukaeran abenduaren 18ko 10/2012 Foru Araua onartu da, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergarena.

Ondarearen gaineko Zerga 212an aitortzeari dagokionez, esan beharra dago 6/2011 Foru Arauan onartutako hasierako araudiak ez duela aldaketarik izan.

Ondarearen gaineko Zergaren arau esparruarekin bukatzeko, nabarmentzekoa da 6/2011 Foru Arauak indarraldi osoa aitortu diola, berak xedatutakoaren aurka ez doan guztian, abenduaren 21eko 118/1999 Foru Dekretuari, 2008ko abenduaren 31n indarrean zeukan idazkeran. Foru dekretu horren bidez zehaztu zen zer beharkizun eta baldintza bete behar dituzten enpresa eta lanbide jarduerak eta entitateetako partaidetzek Ondarearen gaineko Zergaren salbuespenak aplikatzeko.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga likidatzeko aplikatzekoa den erregulazioari dagokionez, zergaren araudiak aldaketa nabarmenak izan ditu 2011ko zergaldian indarrean egon zenaren aldean.

Garrantzitsuenak abenduaren 26ko 5/2011 Foru Arauak sartu zituen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitaldia lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituenak, eta haien artean, hauek dira aipagarriak:

— Ezabatzen da langile lekualdatuen araubidea, eta hura aplikatzea 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen aukeratu zutenentzat araubide iragankor bat ezartzen da hura aplikatzen jarrai dezaten araubidea ezabatu aurretik aurreikusita zegoen eran. Hori dela-eta, kasu honetan aurkeztu behar den aitortpena foru arau honen xedapen iragankorrean arautzen da eta ez, orain arte bezala, artikulatuan.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 277/2013, de 18 de marzo, por la que se aprueban los modelos y modalidades de presentación de las autoliquidaciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre el Patrimonio correspondientes al período impositivo 2012, así como del gravamen único de actualización de balances, regulándose el plazo y los lugares de presentación.

Al igual que en años anteriores, la finalización del año 2012 ha supuesto el cierre del período impositivo del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el consiguiente devengo del Impuesto, que con carácter general se produce el 31 de diciembre. Y como en años precedentes, corresponde ahora a los obligados tributarios liquidar este Impuesto.

La finalización del ejercicio ha supuesto también el devengo del Impuesto sobre el Patrimonio reinstaurado por la Norma Foral 6/2011, de 26 de diciembre. Cabe recordar que el Impuesto sobre el Patrimonio estuvo vigente hasta el período impositivo 2008, y que fue derogado con efectos 1 de enero de 2009 por la Norma Foral 4/2009, de 23 de diciembre, por la que se introducen determinadas medidas tributarias. La citada Norma Foral 6/2011 restableció el Impuesto sobre el Patrimonio con un horizonte temporal de dos años, toda vez que la propia Norma Foral contenía su derogación con efectos 1 de enero de 2013. De cara al año 2013 y siguientes, se ha aprobado la Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

Por lo que respecta a la tributación por el Impuesto sobre el Patrimonio en el año 2012, conviene evidenciar que la normativa aprobada originalmente en la Norma Foral 6/2011 no ha sufrido variaciones.

Para terminar con el marco normativo de este Impuesto sobre el Patrimonio, añadir que la Norma Foral 6/2011 mencionada ha reconocido la vigencia, en tanto no se contradiga con lo previsto en la propia Norma Foral, del Decreto Foral 118/1999, de 21 de diciembre, por el que se determinan los requisitos y condiciones de las actividades empresariales y profesionales y de las participaciones en entidades para la aplicación de las exenciones en el Impuesto sobre el Patrimonio, en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2008.

Por lo que respecta a la regulación que será de aplicación para liquidar el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se ha llevado a cabo una reforma significativa respecto a la regulación del Impuesto que estuvo vigente en el período impositivo 2011.

Las modificaciones de mayor calado se introdujeron en la Norma Foral 5/2011, de 26 de diciembre, de modificación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas tendente a la recuperación de la equidad, y de aprobación de otras medidas tributarias, y entre ellas cabe citar las siguientes:

— Se elimina el régimen de trabajadores desplazados, incluyendo un régimen transitorio para aquéllos que hubieran optado con anterioridad al 1 de enero de 2012 por su aplicación, en virtud del cual podrán continuar aplicándolo en los términos en que estaba previsto con anterioridad a la eliminación. Con tal motivo, la regulación de la declaración a presentar en este supuesto se recoge en la disposición transitoria de esta Orden Foral en vez de en el articulado, como hasta ahora.

— Gauza bidezko lan etekinei dagokienez, urteko 3.500 eurora murrizten da enpresak bere langileei emandako partaidezak gauza bidezko lan etekintzat ez hartzeko muga, eta ikasteetako enplegatuen seme-alabei hezkuntza zerbitzuak ematea jada ez da gauza bidezko lan etekintzat hartzen.

— Desagertzen da gizarte aurreikuspeneko sistemetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren eta ondorengo prestazioen lan etekinak 100eko 60an integratzeko aukera, eta 100eko 60ko integrazioa kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehen prestaziorako bakarrik onartzen da. Neurri honekin batera araubide iragankor bat ezartzen da, eta haren arabera, lehen prestazioa zehaztearen ondorioetarako, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen jasotakoak ez dira konputatuko. Dena den, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen kontingentzia beragatik kapital moduko prestazioak jaso badira, aurreikusitako %60ko integrazio portzentajea aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da aurreko prestazioaz geroztik bost urte igarotzea eta ordaindutako ekarpenek aldizkakotasuna eta erregulartasuna nahikoak izatea.

— Akzioen gaineko aukeretatik datozen etekinei dagokienez, desagertzen da %100etik beherako integrazio portzentajea aplikatzeko muga bikoiztu ahal izatea.

— Urteko 300.000 eurora mugatzen da oinarri ezargarririko %100etik beherako portzentajearen sartu daitezkeen lan etekin irregularren zenbatekoa; hartara, zenbateko hori gainditzen duten etekin irregularrak %100ean integratuko dira. Gizarte aurreikuspeneko sistemetatik datozen lan etekinak muga horretatik kanpo geratzen dira.

— Ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik 65 urtetik gorakoentzat ezarrita dagoen irabazi salbuetsia lehenengo 220.000 eurora mugatzen da, eskualdaketa bakarrerako. Horrekin lotuta, zergaren erregelamendua aldatzen duen abuztuaren 28ko 35/2012 Foru Dekretuak xedapen iragankor bat gehitu du, eta haren arabera, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako eskualdaketak ez dira ondorio hauetarako kontuan hartuko.

— Ondare galera konputaezin berri bat gehitzen da: Higiezin eskualdaketak eragindako galerak, baldin eta hasierako eskurapena salbuetsita egon bada Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan.

— Mugatu egiten da gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenek oinarri ezargarririko murrizpena. Batetik, batera doazen bi muga ezartzen dira: Lehenengoa, ekarpenei dagokie, urtean ezin baitira 5.000 eurotik gorakoak izan, eta bigarrena, ekarpenen eta kontribuzioen baturari aplikatzen zaio, 12.000 euro gehienez; horrekin batera, eta eskema osatzeko, ezartzen da kontribuzioek lehentasuna izango dutela ekarpenen aldean murrizpena aplikatzeko garaian. Bestetik, 67 urtetik gorako zergadunek ezin izango dute inolako murrizpenik egin kontzeptu honengatik; hirugarrenik, nabarmen hobetzen dira pertsona desgaituen alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemei ekarpenak egiteagatik aplikatzen diren murrizpenak. Eta azkenik, kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatea gizarte aurreikuspeneko sistemen murrizpen araubide orokorrean sartzen da, eta, ondorioz, muga orokorrak aplikatzen zaizkio. Aldaketa horiekin batera araubide iragankor bat onartzen da, eta haren arabera, gizarte aurreikuspeneko entitatei 2007an eta hurrengoetan egindako gehiegizko ekarpen eta kontribuzioak muga kuantitatibo berriak errespetatuz murriztu ahal izango dira, adinaren muga aplikatu gabe.

— Hiru tarte berri ezartzen dira zergaren oinarri likidagarri orokorraren tarifan, 90.000 eurotik, 120.000 eurotik eta 175.000 eurotik aurrera. Tasa marjinalak %46, %47 eta %49 dira hurrenez hurren. Horrez gain, lehen zeuden tarteak deflaktatzen dira.

— Con respecto a los rendimientos de trabajo en especie, el límite para la entrega de participaciones de la propia empresa a sus trabajadores se reduce a 3.500 euros anuales, y pierde la no consideración de rendimientos de trabajo en especie la prestación del servicio de educación a hijos de empleados de centros educativos.

— Se elimina la posibilidad de integrar al 60 por 100 los rendimientos del trabajo derivados de segundas y siguientes prestaciones en forma de capital de sistemas de previsión social, limitando de esta forma la integración al 60 por 100 a la primera percepción por cada una de las diferentes contingencias. Esta medida va acompañada de un régimen transitorio en virtud del cual, a los efectos de determinar la primera prestación, no se computarán las percibidas antes del 1 de enero de 2012. Ello sin perjuicio de que, cuando con anterioridad al 1 de enero de 2012 se hayan percibido prestaciones en forma de capital por la misma contingencia, para poder aplicar el porcentaje de integración del 60 por 100 previsto será necesario que hayan transcurrido cinco años desde la anterior prestación y que las aportaciones satisfechas guarden una periodicidad y regularidad suficientes.

— Se elimina, en el caso de los rendimientos derivados de las opciones sobre acciones, la posibilidad de duplicar el límite para aplicar los porcentajes de integración inferiores al 100%.

— Se limita a 300.000 euros anuales la cuantía de los rendimientos irregulares del trabajo susceptibles de ser integrados en la base imponible a un porcentaje inferior al 100%, de forma que la cuantía de los rendimientos irregulares que excedan de ese importe se integrarán al 100%. Quedan excluidos de este límite los rendimientos del trabajo derivados de sistemas de previsión social.

— La ganancia exenta por transmisión de vivienda habitual realizada por mayores de 65 años se limita a los primeros 220.000 euros y para una única transmisión. A este respecto, el Decreto Foral 35/2012, de 28 de agosto, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto, añade una disposición transitoria en virtud de la cual a estos efectos no se tendrán en cuenta las transmisiones que se hubieran efectuado con anterioridad al 1 de enero de 2012.

— Se incluye un nuevo supuesto de pérdidas patrimoniales no computables: Las pérdidas derivadas de la transmisión de inmuebles cuya adquisición previa haya estado exenta en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

— Se limita la reducción en base imponible general por aportaciones a sistemas de previsión social: Al respecto cabe resaltar que, en primer lugar, se establecen dos límites que operan de forma conjunta, el primero sobre las aportaciones, que en ningún caso podrán exceder de 5.000 euros anuales, y el segundo sobre la suma de aportaciones y contribuciones, de 12.000 euros anuales, y para completar el esquema se prioriza la aplicación de la reducción por contribuciones sobre las aportaciones. En segundo lugar, los contribuyentes mayores de 67 años no podrán aplicar reducción alguna por este concepto; en tercer lugar, se mejora sustancialmente el régimen de las reducciones por aportaciones a sistemas de previsión social constituidos a favor de personas con discapacidad. Por último, la mutualidad de previsión social de deportistas profesionales se integra dentro del régimen general de reducción de sistemas de previsión social, de forma que le son aplicables los límites generales. Estas modificaciones van acompañadas de un régimen transitorio, en virtud del cual los excesos de aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social procedentes del ejercicio 2007 y siguientes, se podrán reducir respetando los nuevos límites cuantitativos, y sin que sea de aplicación el límite de edad.

— Se incluyen tres nuevos tramos en la tarifa de la base liquidable general del Impuesto, a partir de 90.000, 120.000 y de 175.000 euros, cuyos tipos marginales serán del 46, 47 y 49%, respectivamente, y se deflactan los tramos existentes anteriormente.

— Aurrezpenaren tributazioa igotzen da, eta eskala bat sortzen da horretarako: Lehenengo 4.000 euroak %20ko tasa fin-koan jarraitzen dira zergapetzen, eta aurrezpenaren gainerako errentak, berriz, %23 ordaintzen du.

— Batera aitortzeagatik aplikatzen diren murrizketak %2 gehitzen dira, eta portzentaje horretan gehitzen dira, orobat, kenkari hauek: Orokorra, ondorengo ahaideena, aurreko ahaideena eta adinarena. Azken hori 30.000 eurotik beherako oinarri ezargarria duten zergapekoei bakarrik aplikatuko zaie, eta murrizketa graduala izango da 20.000 eurotik gorako oinarri ezargarrietan.

— Ohiko etxebizitzaren erosketagatik aplikatzen den kenkaria murriztu egiten da etxebizitza 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera erosten bada. Horrela, kenkari orokorra %15ekoa da, baina 35 urtetik beherakoentzat eta familia ugariarentzat %20koa aplikatuko da. Urteko kenkaria, hurrenez hurren, 1.500 eta 2.000 euro izango da gehienez. Azkenik, kreditu fiskala 30.000 eurora murrizten da. Sartu den araubide iragankorren indarrez, data hori baino lehen egindako erosketa guztietarako, aurreko araubidea mantentzen da.

Abenduaren 27ko 13/2012 Foru Arauak, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituenak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian ere sartu ditu aldaketak, eta 2012ko zergaldian egin behar den likidazioari eragiten diote. Hauek dira nagusiak:

— Ohiko etxebizitza finantza-entitate batek sustatutako prozedura judizial baten ondorioz eskualdatzeagatik lortutako ondare irabaziak salbuetsita geratzen dira, baldin eta zergaduna beste etxebizitza batzuen titularra ez bada.

— Bigarren mailako merkatuetan kotizatzeako onartutako harpidetza eskubideen eskualdaketa lortutako zenbatekoa ondare irabazitzat hartzen da eskubideak eskualdatzen diren zergaldian. Orain arte, zenbateko horrek eskubideen sorburu ziren baloreen eskurapen balioa murrizten zuen.

— Jarduera ekonomikoa bat abiatze aldera kreditu entitateetan inbertsio gisa egiten diren gordailuen kenkaria egokitu egiten da eta, horrela, ezartzen da gordailuan utzitako zenbatekoak aurreikusitako xederako erabili behar direla kontua ireki eta urtebeteko epea igaro ondoren eta hurrengo bi urteen barruan.

— Berariaz arautzen da etxebizitza ohiko etxebizitzatzat hartzen dela gurasoek seme-alaben babesa eta ardura partekatu behar dutenean epailearen erabakiz, eta epai horretan ezarri denean seme-alabek familiaren etxebizitzan bizi behar dutela. Horretarako, hautazko araubide bat eratzen da guraso bakoitzarentzat.

— 2012ko otsailaren 12tik aurrerako ondorioekin -egun horretan sartu zen indarrean 2012ko otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua, lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa-, aldatzen dira bai langilea kaleratzeagatik ematen diren kalte-ordainen salbuespena, bai kaleratze kolektiboengatik edo arrazoi objektiboetan oinarritutako kontratu amaierengatik langileek jasotzen dituzten lansari osagarrien tributazioa arautzen duen artikulua. Bi kasu horietan, asmoa izan da aipatutako alderdien erregulazioa 3/2012 Errege Lege Dekretuak kaleratze kolektiboen esparruan ezarri duen aldaketara egokitzea, aldaketa horrek baimen administratiboa beharrezkoa ez izatea ekarri baitu berekin (uztailaren 6ko 3/2012 Legeak jaso du gero aldaketa hori, lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoak). Gainera, salbuespenaren esparruan, erregulazioa egokitzen da kontuan izateko adiskide-tze egintzaren aurretik enpresaburuak aitortutako bidegabeko kaleratzeak («express kaleratzeak» deitutakoak) lan alorreko arauditik desagertu direla, eta horren ondorioz, beharrezkoa dela kasu hori zerga arauditik kanpo ere uztea.

— Se eleva la tributación del ahorro, creando un sistema de escala mediante el cual los primeros 4.000 euros continuarán tributando a un tipo fijo del 20% y el resto de la renta del ahorro lo hará al 23%.

— Se incrementan en un 2% las reducciones por declaración conjunta, así como las deducciones general, por descendientes, ascendientes y por edad, deducción esta última que pasa a ser aplicable sólo por los contribuyentes que tengan una base imponible inferior a 30.000 euros, con una reducción gradual a partir de una base imponible superior a 20.000 euros.

— Se reduce la deducción por adquisición de vivienda habitual para aquellas viviendas que vayan a ser adquiridas a partir del 1 de enero de 2012. Así, la deducción se fija en un 15%, ampliable a un 20% para menores de 35 años y familias numerosas. La cantidad anual máxima deducible será de 1.500 y 2.000 euros, respectivamente. Por último, el crédito fiscal se reduce a 30.000 euros. En virtud del régimen transitorio que se incluye, para todas aquellas adquisiciones anteriores a la citada fecha, se mantiene el régimen anterior.

La Norma Foral 13/2012, de 27 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias, también ha incluido diversas modificaciones en la regulación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, con incidencia en la liquidación a efectuar por el periodo impositivo 2012, entre las que cabe destacar las siguientes:

— Se establece una exención para las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de la vivienda habitual como consecuencia de un procedimiento judicial instado por una entidad financiera, siempre que el contribuyente no sea titular de otras viviendas.

— La transmisión de los derechos de suscripción de valores admitidos a negociación en mercados secundarios pasa de minorar el valor de adquisición de los valores de los que proceden a tributar como ganancia patrimonial en el periodo impositivo en que se transmiten.

— Se ajusta la deducción por depósito en entidades de crédito para la inversión en el inicio de una actividad económica, estableciendo la exigencia de que las cantidades depositadas se destinen a la finalidad prevista una vez transcurrido un año desde su apertura y durante los dos años siguientes.

— Se regula de forma expresa la consideración de vivienda habitual para los progenitores en los supuestos de que por decisión judicial se hubiera acordado la guarda y custodia compartida de los descendientes y se hubiera establecido la residencia de éstos en la vivienda familiar. Para ello, se articula un régimen de opción para cada progenitor.

— Con efectos a partir del 12 de febrero de 2012, fecha de entrada en vigor del Real Decreto-ley 3/2012, de 10 de febrero, de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral, se modifican la exención de las indemnizaciones por despido y el artículo regulador de la tributación de los complementos salariales percibidos como consecuencia de despidos colectivos o de determinadas extinciones de contrato por causas objetivas. En ambos casos, se pretende adecuar la regulación de estos aspectos a la modificación operada por el citado Real Decreto-ley (y que posteriormente se ha recogido en la Ley 3/2012, de 6 de julio, de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral) en el ámbito de los despidos colectivos, con la eliminación de la autorización administrativa con carácter general. Además, en el ámbito de la exención, la regulación se ajusta a la desaparición de la normativa laboral de los despidos improcedentes reconocidos por el empresario con anterioridad al acto de conciliación (lo que se vino en denominar el «despido express»), eliminándose, por tanto, también de la normativa tributaria, este supuesto.

— Aurreko paragrafoko azken puntuan esandakoarekin lotu-lotuta, araubide iragankor bat ezartzen da bidegabeko kaleratze kasuetarako aurreikusita dagoen salbuespena bermatzeko, kaleratze horiek lan arloko arauditik desagertuta egon arren. Izan ere, kaleratzea 2012ko otsailaren 12tik 13/2012 Foru Araua indarrean sartu bitartean gertatu bada, eta enpresaburuak bidegabekotzat aitortu badu kaleratze hori adiskidetze egintza egin aurretik, zerga salbuespena bermatuta geratzen da. Horrez gain, araubide iragankor horrek aurreikusten du lan-urte bakoitzeko berrogeita bost eguneko soldata uztea salbuetsita (berrogeita bi hilabete gehienez), enplegua erregulatze espedienteak 2012ko otsailaren 12a baino lehen hasitakoak badira edo data horretan indarrean badaude.

— Salbuetsita geratzen dira ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan aurreikusita dauden konpentsazio ekonomikoak. Dekretu horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egokian izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzea eta biktima horiei ordainak ematea.

— Azkenik, berariaz ezartzen da Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei ekarpen eta kontribuzioak egiteagatik Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkeztutako autolikidazioetan egindako murrizpenak erregularizatu behar direla, baldin eta entitate horien kargura jasotzen diren prestazioak edo antzinatasun erreskateak ez badaude beren osotasunean zergapetuta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan. Elusioaren aurkako neurri honek badakar berekin aukera bat gizarte aurreikuspeneko sistemetarako aurreikusitako gerorapen tributarioaren erregimenari dagokiona, eta da oinarri ezargarri orokorrean murrizpenak aplika daitezkeela, baldin eta, horren ordainean, prestazioak edo erreskateak oinarri ezargarrian integratzen badira.

Aipatzekoa da, bestalde, abenduaren 27ko 83/2011 Foru Dekretuak ezarrita utzi zuela zer eguneratze koefiziente aplikatu behar diren 2012an ondare irabazi eta galerak zergan kalkulatzeko.

Bere aldetik, lehen aipatutako 35/2012 Foru Dekretuak baldintzak errazten ditu jarduera ekonomikoaren titularrak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak kontribuzio gisa tratatu daitezen zergaren oinarri ezargarrian murrizteko; horrela, murrizpena aplikatuko da entitate borondatezko gizarte aurreikuspeneko enplegu entitate bat denean, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, bazkide babeslea eta onuraduna bada. Abenduaren 28ko 48/2012 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta ondare irabazi eta galerak zerga horretan kalkulatzeko 2013an aplikatu behar diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak, zehaztasun gehiago eman ditu, geroago, 35/2012 Foru Dekretuak sartutako aldaketa horri buruz.

Araudiarekin amaitzeko, abenduaren 23ko 1105/2011 Foru Aginduak, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoak diren zeinu, indize eta moduluei buruzkoak, ezarrita utzi zuen zein zeinu, indize edo modulu aplikatu behar ziren 2012ko zergaldian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoan.

2012ko errenta eta ondarearen kanpainari dagokionez, aurtent hainbat berrikuntza daude.

Lehenik eta behin, esan behar da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren autolikidazioak ezin direla paperean aurkeztu. Hortaz, 2012ko ekitaldia aitortzeko kanpainan 109 ereduak hiru aurkezpen modalitate izango ditu, «autolikidazio proposamena», mekanizatua, edo internet bidezkoa; 714 ereduak, berriz, internet bidez baino ezingo da aurkeztu.

— Estrechamente ligado al último inciso del párrafo anterior, se incluye un régimen transitorio para asegurar la exención prevista para los despidos improcedentes en aquellos supuestos en los que, a pesar de su desaparición de la normativa laboral, el despido efectuado entre el 12 de febrero de 2012 y la entrada en vigor de la citada Norma Foral 13/2012, hubiera sido reconocido como improcedente por el empresario con anterioridad al acto de conciliación. Además, este régimen transitorio también prevé la aplicación de la exención de cuarenta y cinco días de salario por año de servicio, con máximo de cuarenta y dos mensualidades, a los supuestos de expedientes de regulación de empleo iniciados con anterioridad al referido 12 de febrero de 2012 o que estuvieran vigentes a esa fecha.

— Se establece la exención de las compensaciones económicas previstas en el Decreto 107/2012, de 12 de junio, de declaración y reparación de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus derechos humanos, producida entre los años 1960 y 1978 en el contexto de la violencia de motivación política vivida en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

— Por último, se incluye expresamente la alusión a la obligación de regularizar las reducciones practicadas en autoliquidaciones presentadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, por aportaciones y contribuciones efectuadas a las Entidades de Previsión Social Voluntaria, cuando las prestaciones o rescates por antigüedad que se efectúen con cargo a los mismos no estén sometidos plenamente al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Esta medida antielusión incorpora una previsión inherente al propio régimen de diferimiento tributario previsto para los sistemas de previsión social, que posibilita la aplicación de reducciones de la base imponible general, con la contrapartida de la integración en la base imponible de las prestaciones o rescates.

Apuntar, por otra parte, que el Decreto Foral 83/2011, de 27 de diciembre, establece los coeficientes de actualización aplicables en el ejercicio 2012 para la determinación de las ganancias y pérdidas patrimoniales en el Impuesto.

Por su parte, el Decreto Foral 35/2012 citado anteriormente, simplifica los requisitos exigibles a las aportaciones propias del titular de la actividad efectuadas a entidades de previsión social voluntaria para que sean tratadas como contribuciones a efectos de su reducción en la base imponible del Impuesto, vinculando la reducción a que se trate de una entidad de previsión social voluntaria de empleo en la que el titular de la actividad sea a su vez socio protector y beneficiario. La modificación contenida en ese Decreto Foral 35/2012 ha sido posteriormente matizada por medio del Decreto Foral 48/2012, de 28 de diciembre, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y se aprueban los coeficientes de actualización aplicables en el ejercicio 2013 para la determinación de las ganancias y pérdidas patrimoniales en el citado impuesto.

Para terminar con la materia regulatoria, señalar que la Orden Foral 1105/2011 de 23 de diciembre, por la que se determinan los signos, índices o módulos, aplicables a partir de 1 de enero de 2012, ha establecido los signos, índices o módulos del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicables durante el periodo impositivo 2012.

Centrándonos ya en la gestión de la campaña de renta y patrimonio 2012, son varias las novedades a destacar.

En primer lugar, resaltar que se elimina la posibilidad de presentar las autoliquidaciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre el Patrimonio en soporte papel. Por tanto, en la campaña de declaración correspondiente al ejercicio 2012, el modelo 109 se podrá presentar en las modalidades «propuesta de autoliquidación», mecanizada o internet; y el modelo 714 exclusivamente en la modalidad internet.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioari dagokionez, zehaztu behar da orain arte «modalitate «berretsia» esaten zena «autolikidazio proposamena» izatera pasa dela, eta «modalitate «arrunta» aurrerantzean «internet» bidezko modalitatea dela; izan ere, modalitate arruntaren papezko euskarria desagertu denez, orain bide telematikoa da aurkezpen modu bakarra.

Autolikidazio proposamena onartzeko prozedurari dagokionez, aurren posible da zerga Administrazioak bidaltzen duen proposamena onartzea mezenasgoarengatik edo langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik aplikatutako kenkariak aldatuta. Kenkariak aldatu daitezke adostasuna telefonoz eman zein bide telematikoz eman. Aldaketa hori egiteko, ez da beharrezkoa egindako aldaketen frogagiriak aurkeztea, geroago eskatu badaitezke ere.

Modalitate mekanizatuan zabaldu egiten da haren eremu objektiboa. Izan ere, alde batetik, 30.000 eurotik 100.000 eurora handitu da ondare irabazi eta galerak sortzen dituzten eskualdaketa modalitate honetatik salbuesteko zenbateko globala, eta, bestetik, bostetik hamarrera gehitu da eskualdaketa eragiketen kopurua.

Bestalde, modalitate honetan dokumentazioa aurkezteko obligazioei dagokionez, zergadunek, ohiko egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikora aldatzeagatik, lehen autolikidazioa lurralde honetan aurkezten badute modalitate mekanizatua erabilita, beharrezkoa den gainerako dokumentazioa ez ezik, aurreko lehen lau zergaldietan beste zerga administrazioetan aurkeztutako aitortzen kopiak ere aurkeztu behar dituzte.

Dokumentazioaren aurkezpenari buruzko alderdiekin jarraituta, Ondarearen gaineko Zergan desagertu egiten da autolikidazioarekin batera bestelako agiriak aurkezteko obligazioa, nahiz eta horrek ez duen kentzen geroago agiriren bat eskatu ahal izatea.

Argiago arautzen da 109 ereduaren autolikidazioa internet bidez aurkeztean dokumentazioa eransteko obligazioa. Zehazki, erregela hauek ezartzen dira:

1.a. Autolikidazioa sinadura elektronikoa edo pasahitz operatiboa erabilita aurkeztu denean:

a) Zerga informazioa atalean erregistratu gabe dauden datuen frogagiriak baino ez dira aurkeztu behar. «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen atarian eskura daiteke zerga informazioa. Ez da beharrezkoa atal horretatik inprimatutako informaziorik aurkeztea.

b) Sinadura elektronikoa edo pasahitz operatiboa erabiliz aurkeztutako autolikidazioa egiteko ez bada beharrezkoa izan Zerga informazioa atalean jasotakoaz besteko informaziorik erabiltzea, ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

c) Aurreko ekitaldian, 2012an, zergadunak ohiko etxebizitza erosi badu, inbertsioari dagokion dokumentazioa eta, kasua bada, aurreko a) letran aipatutako frogagiriak aurkeztu behar dira.

2.a. Autolikidazioa kontraste datua erabiliz transmititu denean, frogagiri guztiak aurkeztu behar dira.

109 ereduaren autolikidazioa bide telematikoz aurkezteko dokumentazioari dagokionez, aipatzekoa da hura bidaltzen

En la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, conviene aclarar que la que venía denominándose modalidad «confirmada» pasa a llamarse modalidad «propuesta de autoliquidación» y que la modalidad «ordinaria» pasa a ser la modalidad «internet», toda vez que, al desaparecer la presentación en soporte papel de la modalidad ordinaria, la única forma de presentación que permanece es la presentación por vía telemática.

Por lo que al procedimiento de confirmación de la propuesta de autoliquidación se refiere, este año se incorpora la posibilidad de aceptar la propuesta de autoliquidación remitida por la Administración tributaria modificando la cuantía de las deducciones por mecenazgo o por cuotas satisfechas a sindicatos de trabajadores. La modificación se podrá llevar a cabo cualquiera que sea la forma de manifestación de la conformidad, telefónica o telemática. Esta modificación no precisa aportar justificación de los cambios realizados, sin perjuicio de que pueda ser requerida posteriormente.

En la modalidad mecanizada, se amplía su ámbito objetivo al aumentar de 30.000 a 100.000 euros el importe global de las transmisiones de elementos patrimoniales generadoras de ganancias y pérdidas patrimoniales, a considerar a efectos de la exclusión de la modalidad, y de cinco a diez el número de operaciones de transmisión.

Además, por lo que a las obligaciones de presentación de documentación en esta modalidad se refiere, se establece la obligación de que los contribuyentes que, por traslado de residencia habitual al Territorio Histórico de Gipuzkoa, presenten su primera autoliquidación en este territorio en la modalidad mecanizada, adjunten, además del resto de documentación necesaria, las copias de las declaraciones presentadas en otras administraciones tributarias en los cuatro periodos impositivos inmediatos anteriores.

Continuando con aspectos relacionados con la presentación de la documentación, señalar que en el Impuesto sobre el Patrimonio se suprime la obligación de adjuntar en la presentación de la autoliquidación cualquier tipo de documentación, sin perjuicio de la que se pueda requerir con posterioridad.

Se regula de una manera más clara la obligación de aportar documentación correspondiente a la autoliquidación del modelo 109 presentada en la modalidad internet, que se susenta en las siguientes reglas:

1.ª Cuando la autoliquidación se haya presentado empleando firma electrónica o clave operativa:

a) Se deberán aportar exclusivamente los justificantes correspondientes a la información no registrada en el apartado Información fiscal, que se encuentra disponible en el portal de trámites y servicios telemáticos «Gipuzkoataria», sin que sea necesario aportar ninguna información que haya sido impresa desde dicho apartado.

b) No es necesario aportar ninguna documentación cuando para la confección de la autoliquidación presentada empleando firma electrónica o clave operativa, no haya sido necesaria ninguna información adicional a la recogida en el apartado Información fiscal,

c) Siempre que el contribuyente haya adquirido vivienda habitual en el ejercicio anterior, 2012, se deberá aportar la documentación relativa a la inversión y, en su caso, los justificantes a los que se alude en la letra a) anterior.

2.ª Cuando la autoliquidación se haya presentado empleando dato de contraste en la transmisión, se deben presentar todos los justificantes.

Por lo que respecta a la documentación correspondiente a la autoliquidación del modelo 109 que se presente por vía telemática,

duen erabiltzaileak, partikularra izan zein «profesionala» izan, frogagiriak zerga Administrazioak jaso izanaren egiaztapena eskuratuko duela. Aurkezpena paperean egiten denean eta aurkeztelea «profesionala» denean, dokumentazioa ez da karpeta batean aurkeztuko, orain arte bezala; partikularrek egiten duten eran aurkeztuko da, DIN A4 tamainako kartazal zuri batean sartuta, alegia.

Azkenik, foru agindu honen bidez 108 eredu onartzen da, «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan balantzeak eguneratzearen karga bakarraren autolikidazioa» izenekoa. Balantzeak eguneratzeari buruzko otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauan ezarrita dagoen eguneratzea egiten duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek edo, hala badagokio, euren ordezkariak aurkeztu behar dute eredu hau.

Aurkezteko epea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga autolikidatzeko ezarrita dagoen berbera da, nahiz eta bere autolikidazioa guztiz independentea izan beste bi zerga horien autolikidazioekiko.

Bi modutan egin daiteke aurkezpena: Paperezko euskarria erabiliz –zerga-bilketaren kudeaketan laguntzeko baimenduta dauden entitateetan aurkeztuta–, edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskura dagoen formularioa betez (helbidea: <https://www.gfaegoitza.net>). Formularioa inprimagarria denez, behin inprimatuta aukera emango du autolikidazioa paperean ere aurkezteko.

Karga bakarraren autolikidazioari ez zaio inolako dokumentaziorik erantsi behar, baina horrek ez du kentzen dokumentazio hori geroago eskatu ahal izatea.

Ordainketa entitate laguntzailean bertan egin daiteke, 108 eredu paperezko euskarrian aurkeztzen denean, edo bankutik helbideratu daiteke aurkezpena bide telematikoz eginez gero.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2012ko autolikidazioa egiteko 109 eredu onartzea.

Onarturik geratzen da 2012ko zergaldiari dagokion 109 eredu, «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa». Foru agindu honetako I. eranskinean jasotzen dira bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkeztzen diren autolikidazioen diseinu fisiko eta logikoak.

2. artikulua. 109 eredu aurkezteko modalitateak.

Bat. 2012ko zergaldiko «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa» aurkezteko erabili behar den 109 ereduak hiru aurkezpen modalitate ditu: Autolikidazio proposamena, mekanizatua eta internet.

A) Autolikidazio proposamena.

1. Ogasun Zuzendaritza Nagusitik autolikidazio proposamena ontzat emateko jasotzen duten zergadunek erabili dezakete modalitate hau, betiere abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak (aurrerantzean zergaren foru arauak) 105. artikuluan

tica, señalar que el usuario transmitente, sea éste particular o «profesional», recibirá una confirmación de la recepción por parte de la Administración tributaria de los justificantes enviados. Cuando la presentación se realice en soporte papel, y el presentador sea «profesional», la documentación a adjuntar no se entregará en una carpeta como hasta ahora, sino de la misma forma que los particulares, en un sobre blanco de tamaño DIN A4.

Por último, la presente Orden Foral aprueba un modelo 108, «Autoliquidación del gravamen único de actualización de balances en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas». Este modelo lo presentarán los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que practiquen la actualización de balances prevista en el Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero, de actualización de balances, o, en su caso, sus representantes.

El plazo de presentación será el mismo que el previsto para la presentación de la autoliquidación de los Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas y del Patrimonio, aunque se trata de una autoliquidación independiente respecto a las correspondientes a esos impuestos.

La presentación se realizará, o bien en soporte papel a presentar en entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la gestión recaudatoria de los tributos, o bien mediante formulario que estará disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección <https://www.gfaegoitza.net>. Este formulario imprimible posibilitará también, una vez impreso, la presentación de la autoliquidación en soporte papel.

No es necesario acompañar la autoliquidación del gravamen único con ninguna documentación, sin perjuicio de que ésta pueda ser requerida con posterioridad.

El ingreso se realizará en la misma entidad colaboradora al presentar el modelo 108 en soporte papel, o bien mediante domiciliación bancaria cuando se presente por vía telemática.

En su virtud,

DISPONGO

CAPÍTULO I

IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

Artículo 1. Aprobación del modelo 109 de autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondiente al periodo impositivo de 2012.

Se aprueba el modelo 109 «Autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas», correspondiente al periodo impositivo de 2012, cuyos diseños físicos y lógicos, a los que deberán ajustarse las autoliquidaciones presentadas por medios electrónicos a través de fichero, se incluyen como anexo I de la presente Orden Foral.

Artículo 2. Modalidades de presentación del modelo 109.

Uno. El modelo 109 «Autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas» correspondiente al periodo impositivo de 2012, se presentará con arreglo a alguna de las modalidades siguientes: Propuesta de autoliquidación, mecanizada e internet.

A) Propuesta de autoliquidación.

1. Podrán acogerse a esta modalidad aquellos contribuyentes a los que la Dirección General de Hacienda remita una propuesta de autoliquidación para que muestren su conformidad, de acuerdo con lo previsto en el artículo 105 de la Norma

jasotakoaren arabera eta abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako zergaren erregelamenduak (aurrerantzean zergaren erregelamenduak) 79. artikuluan ezarritakoari jarraikiz bidalitakoa bada.

2. Autolikidazio proposamenen kuota diferentziala ordaintzekoa, itzultzekoa zein negatiboa izan daiteke.

3. Adostasuna bi modutara eman daiteke: Proposamenean adierazten den telefono zenbakira deituz (902.100.040) edo, bestela, bide telematikoa erabiliz.

Adostasuna telefonoz ematekotan, proposamenean agertuko den kontraste datua adierazi beharko da.

Aldiz, adostasuna bide telematikoz adierazteko, modu hauetako batean jokatu ahal izango da:

a) Proposamenean jasotako kontraste datua erabilita. Horretarako, Ogasun eta Finantza Departamentuko web atarian prestatutako zerbitzuan sartu behar da. Berrespen prozesuaren barruan, aplikazioak kontraste datua eskatuko dio erabiltzaileari.

b) Sinadura elektronikoko balioztatua edo pasahitz operatiboa erabilita, irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Zerga Administrazioaren aurrean egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzekoak, 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Horretarako, erabiltzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan kokatutako «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen atarian sartu behar du (<https://www.gfaegoitza.net>), eta, behin nortasuna Zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duen azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak 3. artikuluan jasotako prozedurari jarraituz frogatuta, proposamenaren berrespena tramitatu behar da.

Behin proposamena berretsita, aurkeztutako autolikidazio-tzat hartuko da.

4. Adostasuna adierazteko era zeinahi dela ere –telefonia zein telematikoa–, proposamena onartzeko prozesuan zehar zergadunak posible du mezenasgoarengatik edo langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik autolikidazio proposamenean ageri diren kenkariak aldatzea, okerrak direla ikusten duenean. Aldaketa hori egiteko, ez da beharrezkoa egindako aldaketen frogagiririk aurkeztea, baina horrek ez du eragozten zerga Administrazioak frogagiri horiek edozein unetan eskatzea zergadunari.

5. Zergadunak ez badu adierazten, ezarrita dagoen epean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalitako proposamenarekin ados dagoela, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak artikuluko honetan ezartzen diren beste modalitateetako bat erabiliz aurkeztu beharko du autolikidazioa, betiere horretara behartuta badago.

B) Mekanizatua.

1. Autolikidazioa modalitate mekanizatuan egiteko, zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuak hura aurkezteko eratuak dituen bulegoetako langileen laguntza izango dute. Bulego horiek foru agindu honen 5. Bat artikuluan aurreikusitakoak dira.

Beren sarrerak zergaren foru arauak 6. artikuluan aipatzen dituen errentetatik datozen erabili dezakete zergadunek modalitate mekanizatua, honako hauek izan ezik:

Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (en adelante Norma Foral del Impuesto) y en el artículo 79 del Reglamento del Impuesto, aprobado por el Decreto Foral 137/2007, de 18 de diciembre (en adelante Reglamento del Impuesto).

2. Las propuestas de autoliquidación podrán dar como resultado una cuota diferencial a ingresar, a devolver o negativa.

3. Dicha manifestación de conformidad se podrá realizar, o bien por vía telefónica llamando al número que se indique en la citada propuesta (902.100.040), o bien por vía telemática.

Si la manifestación de conformidad se realiza por vía telefónica, será necesario facilitar el dato de contraste que constará en la propuesta remitida.

La manifestación de conformidad por vía telemática, por su parte, se podrá realizar de alguna de las siguientes maneras:

a) Mediante el uso del dato de contraste que constará en la citada propuesta. Para ello será necesario acceder al servicio habilitado al efecto en el portal web del Departamento de Hacienda y Finanzas. En el transcurso del proceso de confirmación, la aplicación requerirá al usuario el dato de contraste.

b) Mediante el uso de la firma electrónica reconocida o de la clave operativa a las que se alude en el artículo 2.2 del Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral. Para ello el usuario deberá acceder al portal de trámites y servicios telemáticos «Gipuzkoataria», ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa <https://www.gfaegoitza.net>, y una vez acreditada la identidad con arreglo al procedimiento previsto en el artículo 3 de la Orden Foral 1.011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica, proceder a tramitar la confirmación de la propuesta.

Una vez confirmada la propuesta, ésta adquirirá la consideración de autoliquidación presentada.

4. Cualquiera que sea la forma en que se realice la manifestación de conformidad, telefónica o telemática, el contribuyente podrá modificar durante el proceso de confirmación la cuantía de las deducciones por mecenazgo o por cuotas satisfechas a sindicatos de trabajadores que constan en la propuesta de autoliquidación remitida, cuando observe que no son correctas. Esta modificación no precisa aportar justificación de los cambios realizados, sin perjuicio de la potestad de la Administración tributaria para requerir al contribuyente, en cualquier momento posterior, la presentación de la documentación que los justifique.

